

2024ko martxoaren 16a eta 17a

Lagun agurgarriak:

Aurtengo Garizuma, konbertsio pertsonal eta komunitarioko garaia den aldetik, une egokia da Frantzisko aita santuak "guztion etxea" zaintzeko egiten digun deiari erantzuteko.

Guztion etxe hori ama lurra da, bertan bizi garen lagun guztion etxea. Eta mundu-mailan bera zaintzea bakoitzak gauden tokitik egunero banaka egiten ditugun keinu eta erabaki txikien mende dago.

**"Natura zaintzea elkarbizitzarako eta elkartasunerako gaitasuna eskatzen duen bizimodu baten parte da" (Laudato Si, 228)**

Presta dezagun Garizuma, bizi garen mundu naturala eta soziala zaintzea gogoan edukirik, pobreziaren aurkako apustua eginez gauza zehatzetatik abiatuta. Eta egin dezagun elkarrekin, gure bizilagunekin, gure parrokia-elkartearekin, Caritaseko boluntariotzako gure lankideekin, gure familiarekin, gure proiektuetan parte hartzen duten pertsonekin...; izan ere, elkartasun eta elkarbizitza horretatik gure ingurunea hobetzeko moduko ideiak eta proposamenak sor daitezke.

**"Arazo sozialei sare komunitarioekin erantzuten zaie, ez banakako ondasunak batuz soilik" (Laudato Si, 219).**

Utz ditzagun atzean egindako akatsak, osoko ekologiatik aldentzen gaituzten bizio iraunkorrak, damutu gaitezen bihotzez, eta has gaitezen lanean guztion etxe komun horren alde, egunero hartu behar dugun erabaki bakoitzean.

Justiziaren eta eraldaketa sozialaren aldeko lanean komunitate abegikor eta inklusibo izaten jarraitzeko, gonbit egiten dizugu honako hauek egitera:

- **Murriztu:** zure kontsumoa murriztuz eta zure bizitza soilduz, kalitatea jarriz kantitatearen aurretik.
- **Konpondu:** etxeko tresnen eta gailuen bizitza erabilgarria luzatuz.
- **Berrerabili:** Koopera dendak bisitatuz, gauzak elkarrekin edukiz zure ingurunean.
- **Berraprobatxatu:** janaria alferrik ez galduz, elikagaiak berriz aprobetxatzeko errezetak bilatuz.
- **Birziklatu:** Bizkai osoan banatutako Kooperaren edukiontzia erabiliz eta etxeko hondakinak birziklatuz.
- **Enplegu duinaren alde egin,** kontsumo-portaera arduratsua edukiz: ezagutu eta kontratatu Caritasi, gure elizari eta beste erakunde sozial batzuei lotutako **ekonomia solidarioko** ekimenen zerbitzuak eta produktuak.
- **Gure konpromiso komunitarioa indartzea:** komunitatean hausnarketa eginez iraunkortasunaren eta pertsonen zaintzaren aldeko praktika komunitarioak hartzeko.

Garizuma honek aukera eman diezagula hartzen gaituen munduarekin adiskidetzeko bidean laguntzeko eta duintasun pertsonalean eta balioetan oinarritutako ekarpen indibidualekin aberasteko, bai eta guztion etxearen aldeko konpromiso komunitarioa birpentsatzeko ere.



Elena Unzueta Torre. Zuzendaria.



16 y 17 de marzo de 2024

Estimadas amigas, estimados amigos:

La Cuaresma de este año, como tiempo de conversión personal y comunitaria, es un buen momento para atender la llamada a cuidar de la “casa común” que nos hace el Papa Francisco.

Esa casa común es la madre tierra, el hogar de todas las personas que la habitamos. Y su cuidado a nivel mundial depende de los pequeños gestos y decisiones diarias que de modo individual realizamos desde donde cada una estamos.

**“El cuidado de la naturaleza es parte de un estilo de vida que implica capacidad de convivencia y de comunión” (Laudato Si, 228)**

Preparemos la Cuaresma pensando en cuidar del mundo natural y social en el que vivimos, comprometiéndonos en apostar contra la pobreza desde lo concreto. Y hagámoslo en comunidad, con nuestros vecinos y vecinas, con nuestra comunidad parroquial, con nuestras compañeras y compañeros del voluntariado de Caritas, con nuestra familia, con las personas que participan en nuestros proyectos, ... porque de esa comunión y convivencia pueden surgir ideas y propuestas de mejora de nuestro entorno.

**“A problemas sociales se responden con redes comunitarias, no con la mera suma de bienes individuales” (Laudato Si, 219).**

Dejemos atrás los errores cometidos, los vicios mantenidos que nos alejan de la ecología integral, arrepiéntámonos de corazón y dispongámonos a trabajar en favor de esa casa común en cada decisión que debamos tomar cada día.

Para que sigamos siendo comunidades acogedoras e inclusivas trabajando por la justicia y la transformación social, te invitamos a:

- **Reducir:** disminuyendo tu consumo y simplificando tu vida, anteponiendo calidad a cantidad.
- **Reparar:** alargando la vida útil de tus enseres y aparatos domésticos.
- **Reutilizar:** visitando las tiendas Koopera, compartiendo con tu entorno.
- **Reaprovechar:** no desperdiciando comida, buscando recetas de reaprovechamiento alimentario.
- **Reciclar:** a través de los contenedores de Koopera distribuidos por toda Bizkaia y mediante el reciclaje de residuos domésticos.
- **Apostar por el empleo digno** a través de tus comportamientos de consumo responsables: conoce y contrata servicios y productos de iniciativas de **economía solidaria** vinculados a Caritas, a nuestra Iglesia y a otras organizaciones sociales.
- **Fortalecer nuestro compromiso comunitario:** a través de la reflexión en comunidad para la adopción de acciones en favor de la sostenibilidad y cuidado de las personas.

Que esta Cuaresma nos permita acompañar el camino de reconciliación con el mundo que nos acoge y enriquecerlo con aportaciones individuales centradas en la dignidad personal y los valores, así como repensar nuestra práctica comunitaria en pro de la casa común.



Elena Unzueta Torre . Directora

